

## **BERMEOKO UDAL HILERRIAREN BARNE ANTOLAKUNTZA ARAUDIA**

- I. ATAI,A                    - Xedapen Orokorrak.
  
- II. ATALA                    - Gestioa, Administrazioa eta Iraunarazpena.
  - 1. Saila - Jabetza eta instalazioak.
  - 2. Saila - Administrazioa.
  - 3. Saila - Iraunarazpena.
  
- III. ATALA - Hilobiena.
  - 1. Saila - Huskuneena.
  - 2. Saila - Panteoiena.
  - 3. Saila - Hobiena.
  - 4. Saila - Hilobiena.
  
- IV. ATALA                    - Lurperatze eskubideak: Jabetzak eta Jabe aldakuntzak.
  
- V. ATALA                    - Hildakoak eroatea eta leku-aldaketak.
  
- VI. ATALA                    - Lurperatzeak eta Lurpetik ateratzeak.
  
- VII. ATALA                    - Ordutegiak.
  
- VIII. ATALA                    - Mugak.
  
- XEDAPEN GEHIGARRIA.
  
- XEDAPEN GEHIGARRI IRAGANKORRA.

# 1. ATALA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikuloa

Bermeoko Udal Hilerri , Herriaren Zerbitzurako Ondasun legez, Udalaren menpe, geratzen da, zehazki, bere administrazio, zainketa eta zuzendaritzan, Arau tegi honek xedatzen dauanaren arabera, Epai Agintaritzeari, eta bere kasuan, Osasun Agintaritzeari jagokozan ahalmenen kalte barik.

### 2. Artikuloa

Beraz, 1. artikuloan ezarritakoaren arabera, Udalarenak izango dira, ondorengo ahalmenak, hilzaintza arloan, indarrean dagoanean oinarrituz:

a) Hilerriaren eta hilobien, zerbitzuen eta instalazioen egokitze lan, mantenu eta antolakuntzea.

b) Hilerriaren barne antolakuntzea, gorpuak bertara eroatea, ere.

c) Hilobien emoitzak, eta edozelako lurperatze eskubideen onarpena.

d) Lurrak hartzeagaitik, legez ezarten diran eskubide eta tasak hartzea, baita, obra lizentziagaitik edo ta, lurperatze eskubideak emoteagaitik, ere.

e) Agindutako, edo etorkizunean agintzen diran osasun eta garbitasun neurriak betearaztea.

f) Hilerriko langilegoa izendatzea, zuzentzea edota, kentzea.

g) Hilerrian, edozelako obra edo instalazio egiteko, partikularrei baimena emotea, eta obrak zuzendu eta ikuskatzea.

h) Hilerrietako jabe eta herri erakunde legez, udalerrri barruan, iharduera honen araukotasuna bermatzeko, jagokon beste edozein eginkizun.

### 3. Artikuloa

Norbanakoei jagoke:

a) Enda, erlijio, aberri edo pentsakeragaitik baztertu barik, Hilerrietan, lurperatze duina izateko eskubidea.

b) Araudi honek ezarritakoaren arabera, bere erlijio edo ideologiari jagokon lurperatze eskubide edo erea.

c) Lurzatia, huskunea edo panteoia, emoten diran iraunarazpen, apaingarritasun eta estetika baldintzetan izatea.

d) Zerga Arautegian agertzen diran zerbitzuekaitik, ordainkizunak betetea.

e) Hilzaintza arloan, Udalak edo ahalmendun beste Erakunde edo Administrazioak emondako aginduak gorde eta betetea.

#### **4. Artikulua**

Erlijio elkarte edo legez onartutako erakunde ezbardinetako ordezkariak, lurperatzeak egiteko egokien deritzena izango dabe, jagoken arauen barruan, eta hildakoei zor jaken begiruneaz.

#### **5. Artikulua**

Euren egoerea edo beste gauza batzukaitik, hilerriko lasaitasuna edo ordena hautsi daikien pertsona edo talderi, sarrerea debekatuko jake. Era berean, ibilgailurik sartzea, ere, galeraziko da, funerariakoek izan ezik. Txakurrik edo beste abererik ere, ezin izango da sartu, itsuen gidariak ezik.

#### **6. Artikulua**

Araudi honen barruan, ondorengo esan-nahiak dabez:

I. Taldean sartzen ez diran beste arrazoiekaz hildako pertsonenak.

## **2. ATALA**

### **Kudeaketa, administrazioa eta iraunarazpena**

#### **Lehen Saila**

#### **Jabegoa eta Instalazioak**

#### **8. Artikulua**

Udal Hilerria, Bermeoko Udalaren jabetza bakarrekoa da, bere zuzendaritza, administrazioa, arautzea, eta iraunarazpena jagokolarik, euren ahalmenen barruan, Euskal Autonomi Elkarateak eta Estatutak agindutakoaren edo ta indarreko legediak ezarrirakoaren kalte barik.

#### **9. Artikulua**

1. Udal Hilerraren kudeaketak, ondorengo helburuak daukaz:

a) Hilerraren administrazioa eta bere ordena zaintzea.

b) Gorpu edo gorpukinak lurperatu edo ateratzea, edo ta, osasun arloan indarreko legediak eskatutako beste edozein betebeharrak.

c) Euren funtzionamendurako, Hilerrien eta hirigintzazko, lorategi, eraikuntza eta instalazioen iraunarazpen, garbitasun eta mantentzerako beharrezko zerbitzu eta lanak egitea.

2. Bermeoko Udalak, aurreko atalean azaldutako zereginak beteko dauz, Arautegi honetan ezarritakoaren arabera ezargarriak liratekeen estatuko edo autonomiko xedapenek emondako ahalmenen arabera.

## **10. Artikulua**

Bermeoko Udalak, bere helburuak beteteko beharrezkoak diran administrazio eta tekniko zeregin guztiak burutzeko ahalmena dauka, batez ere, ondoren azaltzen diranetarako:

1. Ondorengo gaiei buruzko espedienteak hasi, jarraitu eta erabakitzeko:

a) Lurzati, panteoi, hilobi, huskune eta hazurtegi-huskuneak bezalako lurperatze eskubide guztien emote, onarpen eta aldatzea.

b) Lurperatze eskubidearen hobaridunen izendapena.

c) Lurperatze eskubideei jagoken behin-behineko eta behin-betirako jabegoak tramitatu eta emotea, aldatzea, gordetea, eta bikoiztuak emotea.

d) Gorpu eta gorpuzkinen lurperatze, ateratze, errete, aldatze eta gordete baimenak.

2. Hilerriaren funtzionamendu egokia gordeteko beharrezko zerbitzu, lan eta garbitasuna.

3. Hilerrian obrak egiteko lizentziak emotea, fiskalizatze teknikoa eta baimena, partikularrei.

4. Udal Hilerriko gestioa beteteko helburuentzat egokiak diran beste eginkizunak, jagokon Erakundeak erabaki ondoren.

## **11. Artikulua**

Aurreko artikulok ezarritako zerbitzuak emotearen ordainkizunak, une bakoitzean ezargarriak diran Fiskal Arautegiek ezarriko dabez.

## **12. Artikulua**

Bermeoko Udalak, Udal Hilerrri barruan ordena mantentzea zainduko dau, baita, errespetua gordetea, ondorengo arauak betearaziz:

1. Hilerrria, zerbitzuaren behar izanen arabera, Alkateak ezarritako ordutegian egongo da zabalik. Zabaltze eta ixte orduak, Udal Hilerrirako sarbideetan iragarriko dira.

2. Bisitariak, hilerrri barruan, errespetozko jarrera izango dabe, beti, bestela, Udalak, legezko neurriak erabiliz, eta jagokozan ziurtasun zerbitzuen bidez, agindu daitekalarik, arauak hausten dabenek urtetea.

3. Udalak, Hilerrri osoa zaindu dau, baina, ez dau, egin daitekezan hausketa, lapurreta edo ezabaketan erantzunkizunik izango.

4. Hilerrri barruan, inolako salmenta edo iragartasunik egitea, galerazten da.

5. Erabiltzaileen irudia eta intimidade eskubidea gorde ahal izateko, bilobien, lurperaketen edo ta bonelako tokietan ohizkoak ez dir:an ospakizun eta ekintzei argazkiak ateratzea, erreportaiak, marrazkiak edo margokiak egitea, Udalaren aurretizko baimen berezia beharko da, beste erabiltzaileei, zar jaken begirunea gorderik.

6. Hilobietako obra edo idazkiak, lekuari jagokon errespetoz egin bebarko dira.

7. Lapida, gurutze, edo monumentuak, partikularrek jartzeko, Bermeoko Udalaren baimena bebarko dabe, bere mantenu eta iraunarazpena kontzesionariaren kontura joango dalarik.

8. Udalaren baimen berezi barik, debekatuta geratzen da, gorputegi eta hazurtegi orokorretara sartzea, baita, Hilerrriko langilegoarentzat gordeta dagozan instalazioetara sartzea ere.

9. Partikularren aldetik, garbitasun, mantenu eta apaingarritasun lanak, horretarako Udalak ezarritako ordutegi barruan egingo dira. Lan horreek amaiturik, lan egindako tokia, eta bere inguru guztia, beharrezko garbitasun eta apaingarritasun baldintzetan itzi beharko da, lan borren hondakin, sastar eta materiale guztiak, ahal dan kendurik bertatik.

10. Panteoi eta hilobiak eraikitzeke, Erdi Mailako teknikariak, gitxienez, egindako egitasmoa aurkeztu beharko da, horretarako egin diran Arautegiek ezarritakoari lotuta.

### **13. Artikuloa**

1. Udalak, egindako ekintza eta zerbitzuen kontrol eta egitamuketarako, beharrezko liburu eta errejistroak izango dauz, hilerrriaren admirlistrazio onerako.

2. Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, eskari eta kexak, bere jakitasunerako eta tramitaziorako, jagokon erakundera eroango diralarik.

#### **14. Artikuloa**

Udal Hilerriak, eskatuko dauz, gitxienez, eta, urtero hartzen diran aurrekontu-konsignazioekaz batera, Udal Aurrekontu Orokorretan, ondorengo instalazioak:

- a) Gurtzarako kapera edo areto berezia.
- b) Ohol, jantzi, lanabes edo ta, hilobien garbitasunetik ateratako gorpuzkinak ez diran beste edozer gauza erretoko labea.
- c) Hazurtegia.
- d) Ebakuntzak, haurgaltzeak eta mozketak diran, gorpuzkinak lurperatzeko sail bat.
- e) Huskune kopuru nahikoa.
- f) Udalerriko biztanle kopuruaren araberako hilobi hutsak, edo ta, lurzati nahikoa, gitxienez.

### **Bigarren Saila Administrazioa**

#### **15. Artikuloa**

Administrazio kudeaketea, Jaurketa, mantenu eta Zerbitzu Batzorde Informatzailearen politiko arduradunaren zuzendaritzapean egongo da, edo ta, horretarako izendatutako funtzionari edo funtzionarienean.

Lurperatzaile-Arduraduna, Jaurketa, Mantenu eta Zerbitzu Sailari zuzenduta egongo da, Zerbitzuburu Udal Teknikariaren agindupean.

#### **16. Artikuloa**

Lurperatzaile-Arduradunaren eginkizunak:

- 1. Hilerriaren eta bere tokien garbitasuna eta apaingarritasuna zaintzea.
- 2. Bertan dagozan gauzak jagon, baita hilobien apaindurak, edo ta zerbitzurako beharrezkoak diran tresna eta lanabesak.

3. Kapera edo hiltegiaren eta beste instalazioen garbitasuna, baldintza onetan gordetea. Bardin Udal Hilerrri barru guztia.

4. Bai osasun eta baita garbitasun akatsen barri emotea, Jaurketa, Mantenu eta Zerbitzu Batzorde Informatzaileari, baita Hilerrri barruan legoken beste edozer adierazi. Hilerrria garbi mantentzea.

5. Lurperatzeko diran gorpu eta gorpuzkin guztiak hartu eta eroan, hiltegian gorderik, horrela egin behar danean.

6. Lurperatu edo ateratzeko behar diran tan guztiak egin. Hilobiak, partikularrek itxi beharko dabez.

Lurperatzaile-Arduradunak, Herri Errejistroko Arduradunaren edo agindu judizialik edo ta, udal baimenik aurkeztu barik, inolako lurperatzerik ez egitea, zainduko dau.

7. Hilobien garbitasunetik ateratako jantzi eta beste gauzak ezabatzen dirala, zaintzea.

8. Hilerrirako ateen giltza gordetea, Udal Aparejadorearen baimen barik, inori itzi barik, Hilerrriko toki eta zerbitzu guztietako giltzak ere, berak eukiko dauz, beste inori itzi barik.

9. Hilerrri barruan, orden ona gorde, lekuaren eta pertsonen behar dan errespetuaren kaltetan ari diranak, eta ekintzak, ekidituz.

10. Alkate-Udalburuaren edo ta, Jaurketa, Mantenu eta Zerbitzu Batzordearea Arduadunak emondako agindu bereziak betetea.

11. Lurperatzaile-Arduradunak, hazurtegiak, hiltegiak eta autopsi gelak, behar dan moduan airetuta eta jagonda egon daitezala, zainduko dau, lehenengoetan, behar dan besteko sarritasunez, gorpuen gainera karea jaurtirik, herriaren osasunentzako, inolako arriskurik sortu ez daiten.

12. Hilobi guztiak, behar dan mantenu egoeratan egon daitezala, zainduko dau, itzita edo hodamenean aurkitzen diran guztien barri, bere zerbitzuburuari emonaz.

Hilobi moeta ezbardinetan ikusitako akats edo ezabatasun guztien barri emongo deutse, zuzenean, jabeei ere.

13. Ez dau itziko, ez biderik, ez eta, toki publikorik, inolako eraikuntza, apainduriz, ez beste ezertaz hartzen. Horretaz ikusten dauzan lege-hausteen barri, Udal Aparejadoreari emonaz.

14. Udal lizentzi barik, ez dau inolako obrarik Udal Hilerrian egiten itziko. Lurperatzaile-Arduradunak, egingo diran obrak bainbegiratuko dauz, udal baimena eskaturik. Baimenik ez baleu, obrak berehala geldiaraztea, aginduko dau, Udal Aparejadoreari jakinaraziz.

Bardin egingo dau. obrak, emondako lizentziagaz bat ez badatoz, edo ta, gainditzen badabe. Horretarako, Udal Hirigintza sailari eskatuko deutso, astero, aste barruan onartutako obren zerrendea.

15. Hilerriko plano izango dau, bere banaketekaz, hilobi eta panteoiak zenbakiturik, zalantzarik izanez gero, Udal Aparejadoreari galdetuz. Lurzatien izendapena, kasu bakoitzean, horretaz, Lurperatzaile-Arduradunak hartutako aginduen arabera, egingo da.

16. Eraikuntza, altzari eta tresnen materialeak zainduko dauz, ikusten dauzan akatsak, Udal Aparejadoreari jakinaraziz.

17. Hilerria inguratzen dauan gune perimetralaren mantenu eta garbitasun egokia ere, zaindu beharko dau, ikusten dauan lapurreta edo harketa desegokiaren barri, Udal Aparejadoreari emonaz.

18. Hilobi, panteoi, huskune-lekuetako kanpoalde guztiak, kaleak, bideak, etab., behar dan moduan, ordenatuta, garbi, mantendu beharko dauz, bai marmolistek, iheltseroek, etab, eta baita jabeek ere, inolako gastar, hondakin, lore, kandela, apaindura, abar, edota beste ezer itzi ez daiela, zainduz.

19. Hilerriko kanpoaldean, baliatzaileek, sastarrak eta aipatutako gainontzeko gauzak pilatzeko tokiren bat gaituko da.

Aldizka, Lurperatzaile-Arduradunak, Sastar-Batze Zerbitzuko Kamioiak, toki horretan dagozan sastarrak batzea, zainduko dau, Gibelesko Labe erretzailera eroan ahal izateko.

Funerario zerbitzukoa izan ezik, ez dau, inolako ibilgailurik Hilerri barrura sartzen itziko. Panteoi eta beste eraikuntzen materialak garraiatzeko, gurdiak eta eskuko gurdiak erabiliko dira, eragiten dauzan kalteak, eragilearen edo kontratariaren kontura joango diralarik.

21. Iheltsero; marmolista eta abarrek, euren lanerako behar dabean tresnak, bertan ahal izango dabez euki, baina, inori eragozpenik ez ostoporik egin barik.

22. Inolako hondakin izatea galeraziko dau. Obretatik datozenak, egun berean kendu beharko dira. Horretarako, Hilerrian lanean ari diran guztiei, eurek kentzea, aginduko deutsie, eta euren kontura, itzi, onartutako zabortegetan.

Obratik geratzen diran materialak, berehala kendu beharko dira, ere, obretan egon dan gunearen kanpoko aldea, behar dan garbitasun eta mantentze egoera onean itzirik. Honetaz egiten dan edozein lege-hauste, Udal Aparejadoreari jakinaraziko jako.

## **17. Artikuloa**

Udaletxean, eta izendatutako langilegoak, honako liburu honeek, eroango dauz:

- a) Lurperatzeen Errejistro Liburua.
- b) Ateratze eta leku-aldatzeen Errejistro. Liburua.
- c) Hilobien Errejistro Liburua.

## **18. Artikuloa**

Hilobien Errejistro Liburuan, honako zehaztasun honeek jarriko dira:

- a) Izena, abizenak, eta jabearen beste ezaugarriak.
- b) Adjudikatze eguna, eta Udalak emondako eskubide moeta, baita bere amaieraa ere.
- c) Hilobien identifikazioa, euren kokapen zehatza eta, jagokon orden zerbakia.
- d) Lurperatutakoen izen-abizenak eta ezaugarriak, lurperatzeak noiz egin diran jarririk.
- e) Emoitzearen ingargaltzea edo beste edozergaitik hilobia, Udalaren esku, aske, gelditzen dan eguna.

## **19. Artikuloa**

Lurperatzeen Errejistro Liburuan, jarri beharko da:

- a) Hiladakoaren izen-abizenak, eta bere zehaztasunak.
- b) Helbidea edo nongoa dan.
- c) Heriotza eguna, jagokon egiaztagiriaren arabera.
- d) Zergaitik hil dan, jagokon egiaztagiriaren arabera.
- e) Lurperatze eguna.

f) Sartzen dan huskunea, aurkitu ahal izateko beharrezko zehaztasunekaz.

g) Lurperatzea baimentzen dauan Epaitegia.

## **20. Artikuloa**

Ateratzeen Erregistro Liburuan jarri behar da:

a) Gorpu edo gorpukinen arduradun egiten danaren izen-abizenak eta beste zehaztasunak.

b) Atera edo lekuz aldatu dan gorpuaren izen-abizenak eta beste zehaztasunak.

c) Heriotza eguna.

d) Barriro lurperatzeko, gorpua zein hilobi edo nora eroaten dan.

e) Gorpua ateratzea edo lekuz aldatzea baimentzen dauan agintea eta baimen eguna.

## **Hirugarren Saila Iraunarazuena**

## **21. Artikuloa**

Bermeoko Udalak, eta, Jaurketa, Mantenu eta Zerbitzu Sailaren bidez, eta Arautegi honen 22. artikuloak ezarritakoaren kalte barik, zerbitzua emongo dau, eta baita bere esku egongo dira, Hilerriko mantenu, iraunarazte, bideen garbitasuna, estolderi, argiak, zuhaitzak, lorategiak, eraikuntzak eta abarren lanak.

## **22. Artikuloa**

Hilobi eta euren instalazio eta gauzen garbitasuna eta iraunarazpenaz, partikularrak arduratuko dira.

Hilobien garbitasun eta iraunarazpena gordetea beteko ez balege, partikularrek, eta, egoera txarrean dagozala ikusi ezker, hilerriko udal zerbitzuek, hilobiaren jabeari, garbitzea eta konpontzea, aginduko deutsoe, eta honek egingo ez baleu, jarritako epean, Udalak egin daitez, ordez, eta jabearen kontura, Araudi honetako artikuloak ezarritakoaren kalte barik, eskubidearen galtzeari jagokonez.

## **III. ATALA Hilobiena**

## **24. Artikuloa**

Udal Hilerrian, bost (5) hilobi moeta dagoz:

- a) Lurperatze huskuneak.
- b) Hazurtegi edo gorpukin huskuneak.
- c) Panteoiak.
- d) Lurreko hobiak.
- e) Hilobiak.

### **Lehen Saila Hilobiena**

## **25. Artikuloa**

Beharrezko estadistiken araberrako kopuruan izango dauz Udalak, lurperatze huskuneak, eta gorpukin huskuneak, eta, eskatzaileei, lurperatze eskubideak emotea, gorpua berehala izteko, eskarien orden zehatza jarraituz.

## **26. Artikuloa**

Eraikitzen diran lurperatze eta gorpukinen huskuneak, indarreko, Hilan eta Osasun Zainketarako Arautegiak ezarritako osasun arau eta neurrietara lotuko dira.

Lurperatze huskuneen buruzko lurperatze eskubidea, 10 urterako emongo da, gorpua sartzen dan une berean, eta kasu bakoitzerako, Zerga Araudiak ezarritako tasak ordainduz hartuko dira, Arautegi horrek, denboran zehar, izango leukezan aldakuntzei loturik.

## **27. Artikuloa**

Lurperatze huskuneetan egoteko 10 urte horreek, Lurperatze Erregistro Liburuan agertzen dan sartze egunetik hasiko dira. Epe hori igaro ondoren, Udalak, berehala, atarako dauz gorpukinak, eta, hilabeteko epe barruan izango dauz, hazurtegian, prezintatua. Hilabete horren barruan, eta, jagokozan tasak ordaindu ondoren, gorpukinentzako huskune bat eskatu daikie oinordekoek. Hilabetearen barruan, horrelakorik eskatu ezik, gorpukinak, hazurtegi arruntan itziko dira, eta berreskuratze inolako seinale barik, ezabatuko dira.

Huskune bakoitzean, gorpu bat bakarrik, sartu daiteke, lehenagoko gorupukinak, araututako eratan aurretiz atera ezik.

## **28. Artikuloa**

Hazurtegi edo gorpuken huskuneei buruzko lurperatze eskubidea, albi baterakoa izango da, 10 urteko eperako. Eموitza horren epea igaro ondoren, gorpuken guztiak aterako dira, eta hazurtegi arruntan jarriko, eta berreskuratzeko inolako seinale barrik ezabatuko dira.

## **29. Artikuloa**

Bai, lurperatze huskuneentzat eta baita, gorpuken huskuneentzat jarritako egote epearen barruan, senideek, Osasun Agintek eta Udalak baimena emon ondoren, hildakoaren gorpua edo gorpukenak, nazio edo atzerriko beste hilobi bate tara eroan nahi badabe, ez dabe, emoitzearen geratzen dan epeagaitik, ordainkizuna ez beteteko eskubiderik izango.

## **30. Artikuloa**

Gorpuken huskuneek, eta egoteko ezarrita dagoan epe barruan, ezin izango dabe, sendi berekoen 5 gorpuken baino gehiagorik euki.

## **31. Artikuloa**

Lurperatze edo gorpuken huskuneei buruzko lurperatze eskubidea, ondorengo izenean bakarrik erregistratu daitezke:

- a) Pertsona bakarra.
- b) Senar-emazteak.
- c) Erljio elkarteak, edo ta, Administrazioak horrela onartutako asistentzi edo ospitale zentruak, euren kide edo euren hartutakoentzat bakarrik.
- d) Legez eraturako korporazio, fundazio eta erakundeak, euren kide eta langileentzat bakarrik.

## **32. Artikuloa**

Indarreko osasun arautegia betetuz, Udalak, finkatuko dauz, itxierea, margoa, eta huskuneen beste ezaugarritasunak, euren bardintasuna gorde ahal izateko.

**Bigarren Salla  
Panteoiena**

### **33. Artikuloa**

Panteoiak eraikitzeko lur-zatiaren eskubidea, horretarako lurzatiarik hutsik balego, emongo da, lekuaren behar izanaren arabera, luzatu daiteken 50 urteko eperako, Udalak, Osoko Bilkurearen erabagi bidez, egoki baderitzo, epea gitxitu daikelarik. Eموitzearen epea igaro ondoren, baligabetu egingo da, eskubidea, eta Udalak, bereganatuko dau, egindako eraikuntzea, inolako ordain-sari edo eskubide barik. Horrela gertatu ezker, eta, lurperatu danetik, 10 urte igaro badira, gorpukinak, atera egingo dira, Araudi honetako 28n. artikuloez ezarritakoaren arabera.

### **34. Artikuloa**

Panteoiak, Lurperatze eskubidearen jabeak eraikiko dau, bere kontura eta ardurapean. Horretarako, Udal Erregistroan aurkeztu beharko dira, egitasrnoa, aurrekontua eta, eskatzen diran gainontzeko agiriak, obra lizentzirako eskariagaz batera. Obra lizentzia emoteko orduan, lurperatzeen eta apalategien kopurua finkatzeko, panteoi horreen eukierea, zehaztu beharko da.

Era berean, obren haste eta amaitze epea zehaztuko da, urtebetekoa baino handiagoa izango ez dalarik.

Hasteko edo amaitzeko epeak igaro ondoren, lizentzia eta lurperatze eskubidea baliogabetuko dira, lurzatia, Udalarari itzulirik, egindako eraikuntza guztiekaz, eta inolako eskubide edo ordain-sari barik.

### **35. Artikuloa**

Obra moeta guztiek, panteoien konponketek ere, jagokan Udal Erakundeak erabakitako udal lizentzia eta onarpena beharko dabe. Espedienteak, Hirigintza Sailean tramitatuko dira, beharrezkoak lirateken txosten teknikoak ere, sartzen diralarik.

### **36. Artikuloa**

Obrak amaitu ondoren, eraikileak edo ta, kontzesionariak, erabilitako materiale, hondakin, harri, lur, etab. kendu beharko dabez. Baita, ibilgailuekaz, edo beste edozergaz kaleetan, instalazioetan eta eraikuntzetan egindako hausketak, ere, konponduko.

## **Hirugarren Saila Hobiena**

### **37. Artikuloa**

Lurreko hobian lurperatzeko eskubidea, 10 urterako emoten da, epea igaro ondoren, gorpukinak atera egingo diralarik, 27. artikulok ezarritakoaren arabera, hazurtegira eroanez, inolako tasa edo eskubide barik.

### **38. Artikulok**

Aurreko artikulok ezarritakok arren, senideek aurretiz eskatu ezkerok, gorpukinak ateratzen diran egunetik hasitakok hilabetearen barruan, gorpukinen huskuneetara eroango dira, 10 urterako, Zerga Arautegiak jarritakok tasak ordaindu ondoren.

## **Laugarren Sailer Hilobienar**

### **39. Artikulok**

Hilobieier buruzkoko lurperatze eskubiear, leku behar izanaren arabera , 50 urterakok emongo da. Epe amaitu ondoren, baliogabetuta geratuko da lurperatze eskubiear, eta Udalak, bereganatu egingo dau, titularrak, inolako eskubide ez ordain-saririk izango ez daualarik, azken lurperatzetik 10 urte igaro badira, 27. artikulok ezarritakoaren arabera.

## **IV, ATALAR Lurperatze eskubideak, jabetzak, jabe-aldakuntzak**

### **I. Sekzioar DERECHOS FUNERARIOS**

### **40. Artikulok**

Lurperatzear, huskunear, hilobia edo panteoia izatekoko, erabilpenak eragindakok eskubiear, eurretan, gorpua edo gorpuzkinak jartzekok bakarrik izango da, beste ezertarakok erabili ezin daitekelarik, Udalak, bere jabegoar eta erabilpena gorderik.

### **41. Artikulok**

Lurperatze eskubiear, Bermeekok Udalekoko Alkate-Udalburuak emoten dau.

### **42. Artikulok**

Hilobiekikoko lurperatze eskubiear, jagokon Errejistro-Liburuan ezarririk eta, Udal Idazkaritzeak, Alkatetzearen oneritziaz, hilobi bakoitzarentzat emondakok tituluaren bidez bermatuko da.

### **43. Artikulua**

Lurperatze eskubidea emoteko, eta, hobeto ezagutzeko, Hilerriko azalera erabilgarria, honela bananduko da:

a) Lurreko hobiak, lurzatietan bananduko dira, eta lurzatia, lerroetan; hobiak, zenbatuta egongo dira.

b) Lurperatze huskuneak, blokeetan bananduko dira, eta zenbakia edo blokearen izenaz ezagutuko dira, baita, bloke bakoitzean, bere ordena zenbakiaz.

c) Ohizko gorpukinak baino txikiagoak diran gorpukinen huskuneak, bardin bananduko dira.

d) Panteoi bakoitzak, bere zenbakia izango dau.

e) Hilobiek ere, euren zenbakia izango dabe.

### **44- Artikulua**

Lurperatze eskubidea baliogabetuta geratuko da, eta Udalari itzuliko jako, ondorengo kasuetan:

a) Epea igaro dalako, edo ta, horretarako agindua emonaz, ordainkizunak sasoiz ordaindu ez diralako.

b) Araudi honek onartutakoetatik kanpoko beste pertsona bati lurperatze eskubidea aldatzeagaitik.

c) Hilobien hondameneko egoereagaitik. Hondamen egoera honen aitorpenak, eta, borren ondoriozko eskubidearen baliogabetzeak, administrazio-espeditentea beharko dau. Espediente horren barruan, Jaurketa eta Zerbitzu Saileko Arduradun politikoak eskatutako txosten Tekniko eta Juridikoak, eta Gobernu Batzordearen erabakia egon beharko diralarik. Espedienteak, erabaki hartu orduko hilabeteko epean, jarriko da jendaurrean.

d) Hilobia bertan behera itzi dalako. Oinordekoek edo herentziz jabetu diranek, heriotza egunetik hasitako urtebeteko epe barruan, euren aldeko jabe-aldakuntzea eskatzen ez badabe, ulertuko da, horrelakotzat.

Jabe-aldakuntzea eskatuko balebe oinordekoek, eta, hilobiaren egoerea, txarra balitz, hiru hilabeteko epearen barruan, egokitu beharko litzateke, epea igaroko balitz, inolako konponketarik egin barik, eskubidea baliogabetzea erabakiko litzatekelarik, Udalari itzuliz.

e) Jabeak ukatuko baleu.

f) Arautegi honek ezarritakoaren aurka erabili ezkeror lurperatze eskubidea.

#### **45. Artikulua**

Lurperatze eskubideak, dana dala euren epea eta edukia, "inter vivos" ekintzen bidez, ezin izango dira jabez aldatu.

### **I.Eranskina**

#### **II. Sekzioa**

### **HOBIRATZE ESKUBIDEEN KONTZESIOA**

#### **46. Artikulua**

Hobiratze eskubide baten titularrak onuraduna izendatu daike bere heriotzaren ondorako. Udal honetako Hilerrri Sailera etorri beharko da horretarako eta ondorengo datuak azalduko dauzan akta sinatuko dau: hilobiaren datuak, onuradunaren izen-abizenak eta helbidea, eta agiria sinatu dan eguna. Onuradun horren ordezkor bat izendatu daike titularrak, bera hil orduko onuraduna hilgo balitz ere. Titularra udaletxera etorri beharrean ordezkor, agiri notarialaren bidez ere egin daiteke.

#### **47. artikulua**

Hobiratze eskubidea ezkontide bien izenean hartu danean, bizirik geratu dana ulertuko da onuradun legez, batera eta aurretiaz egin ez bada, bien heriotza gertatzen danerako.

#### **48. artikulua**

Onuradunen izendapena ezin izango da aldatu, espresuki egiten ez bada edota gero testamentuaren klausula barruan sartzen ez bada.

#### **49. artikulua**

Hobiratze eskubidearen titularra hiltzen danean, izendatutako onuradunak, testamentuan agertzen diran oinordekoak edota testamentu barik ere jagokenak, euren izenera aldatzera behartuta dagoz. Hilerrri Sailera etorriko dira horretarako udaletxera, titulua edo titularitatea aldatzeko beharrezkoak diran beste frogagiri guztiekaz.

#### **50. artikulua**

Tituludunak izan arren eskualdaketa eskatu ez dabenek, urtebeteren barruan izen aldakuntza egitera behartuta dagoz, Araudi honetako 61 eta 62. artikuluek ezarritakoagaz batera.

## **51. artikulua**

Hobiratze eskubide baten titularrak onuraduna ezendatu dauanean, eta onuradun honek titularraren heriotza frogatu eta bere nortasuna egiaztatzen dauanean egingo da eskualdaketa, titulu barria emonez eta fitxategi orokorrean jarririk.

## **52. artikulua**

Izendatutako onuradunik ez dagoala ulertuko da, titularra orduko onuraduna hil bada. Titularra hil eta gero onuradunaren gertatuko balitz, hartutako eskubidea bere oinordekoengana eskualduko litzateke, hurrengo artikuluetan ezartzen dan moduan.

## **53. artikulua**

Azken borondateen erregistroaren egiaztagiririk testamentua dagoala ikusiz gero, testamentuzko oinordekotza zabalduko da, eta testamentua egin dauanak erabakitakoaren arabera, oinordekoa edo izendatutako legatorioaren alde egingo da eskualdaketa, testamentua egilestu eta gero onuradunik izendatu ez dan bitartean.

## **54. artikulua**

1. Testamentu-egileak bere herentzia hiru-lau oinordekoren alde jarri badau, oinordeko horreen artean, herentzian partehartzerik handiena daukanari egingo jako eskualdaketa.

2. Titulartasuna egilestu behar jakonean izenik ezartea ezinezkoa gertatzen bada, oinordekoen artean adinik handiena daukanaren eskuetara joango da, eta honek onartzen ez badau, adinez haren hurrengoaren eskuetara ea horrela azkenerarte.

## **55. artikulua**

Onuradunaren izendapena egiteko akta administratiboan edo testamenduan ezarritako legatuaren gozamenak eskualdatuko dau hilobiaren titulartasuna gozamenduaren alde. Honen heriotza gertatzen danean kitatu egingo da, jabetza soilez sendoturik.

## **56. artikulua**

Izendatutako onuradunik ez testamentuzko oinordekorik ez dagoanean, lege zibilak jarritako oinordekotza.-hurrenkeran eskualdatuko da hobiratze eskubidea. Testamenturik gabeko eskubiderik balego, aurreko artikuluetan ezarritako arauak gordeko lirateke.

## **57. artikulua**

Oinordekotza testamentu barik eginez gero, ezkontide alargunaren alde antzatsiko da gozamenaren eskubidea bizirik dagoan bitartean eta bigarren ezkontzen ez dan artean. Aipatutako ezkontidea hil egin bada edo bigarren ezkondu dala egiaztatzen bada, jabetza soilez sendotuko da.

### **III. Sekzioa BIZIEN ARTEKO JABETZA ALDAKETAK**

## **58. artikulua**

Hobiratze eskubidearen dohainezko titulu lagapena baliogarritzat hartuko da bizien artean ondorengo kasuetan: titularraren ahaide zuzenak edo albokoak diranean laugarren mailararte, kasu biak odol-ahaidekotasunez; bigarren gradurarte kidetasunez, ezkontideak izanda, edota jabe-aldaketa egin aurretik titularra izan danagaz 5 urtetan gitxienez bizi izan dirala egiaztatzen dabenak; ospitale, alkarte ongile edo erlijiosoak, nortasun juridikoa dabenean legeak ezarritakoaren arabera. Alkarganatze zibilei jagokenez, jagokon erregistroarako jarrita dagoana eukiko da kontuan.

### **IV. Sekzioa BEHIN-BEHINEKO JABE-ALDAKETAK**

## **59. artikulua**

Eskubidearen titularraren heriotza ezin izan dalako frogatu, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa izan ez dalako edo eskubidedunik ez dagoalako, aurreko artikuluetan ezarri diran eretara jabe-aldaketa burutu ezin izan danean, behin-behineko titulua emon daiteke.

## **60. artikulua**

Behin-behineko izaeraz egingo diran jabe-aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal Aldizkarian, eta gehien zabaldua dagozan egunkari bitan argitaratuko dira jagoken espediente administratibo barruan, hurrengo 30 lan egunen barruan eskubideduntzat dagozanek aurka egin daien. Horretarako emongo diran tituluak esku-bide hobedun inoren kalte barik izango dira, titular barriaren edo gorpua ateratzea eskatzen dauanaren ezkontidearen, gurasoen edo odol-ahaidetasunaren laugarren mailarainoko albokoan edo kideen gorpukak edo gorpukinak ateratzeko debekuagaz.

## **61. artikulua**

Hildako baten izenean erregistratuta dagozan hilobie buruzko tituludunek, titulua emon danetik hogeita hamar urte igaro eta gero edota Kode Zibilak ezarritakoaren arabera, titularraren heriotza aitortzea frogaturik eska daikie hilobia eskuz aldatzea.

## **62. artikulua**

Aurreko artikuluan aipatutako titularraren heriotza agirietan egiaztatuta dagoanean edota horren ustezkotasuna egon arren, titulurik aurkeztu ezin danean, besterik frogatzen ez dan bitartean, eskatzailearen titulu jabetza eta hobiratze eskubidea kreditatuta dagozala ulertuko da, ondorengo baldintzak betetuz gero:

a) Geroago eskatzailearen inor ez danen bat hobiratu ez dan bitartean, hamar urte gitxienez emonda badago agiri sinesgarria, eta

b) Odol-ahaidetasunez laugarren mailaraino doan eskatzailearen ezkontide, arbaso, ondorengoak edo albokoaren, edo bigarren mailarainoko kidearen gorpua hilobi horretan hobiratu izan dalako goian emondako epe bardinean, eta ordutik hobiraketarik egin ez dan bitartean.

## **63. artikulua**

Behin-behineko titulua emon eta gero hogeit hamar urte igaro badira, behin-betiko bihurtuko da, eta titulartasuna erreklamatu daikien eskubidea laga egingo da.

## **V. Sekzioa HOBIRATZE ESKUBIDEAREN ALDAKETA**

## **64. artikulua**

Hobiratze eskubidearen jabe-aldaketa, zuzenketa edo aldaketa, interesatuak eskatuta edo ofizioz aitortu daiteke espediente administratiboan. Froga egin eta beharrezko egiaztatutako aurkeztutako dira espediente horretan, bertan agertzen dana eta hobiratze esku-bidearen titulua frogatzeko, galduta badauka izan ezik. Eskatzaileak titulurik ez daukanean, espedientearen tramitaziorako ez da izango eragozpena tituluaren igorpena egiteko ezetza.

## **65. artikulua**

Eskualdaketa espediente baten tramitazioan, hilobian ezer egitea geldiarazita geratuko da zuzentzekotasunez, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda. Geldiarazpena balio barik geratuko da titulu barria emoterakoan. Geldiarazpen hori agindu arren, premiazko egintzak baimendu daitezke, espedientean agirian itziz gero.

## **66. artikulua**

1. Asko erabili dalako edo beste edozein ziogaitik, titulu bat suntsituta geratuko balitz, titularra beraren izenean barria egin daiteke.

2. Titularrak titulua galdu badau edo ohostu egin badeutsoe, haren ordezkoa hartzeko eskubidea izango dau.

## **67. artikulua**

Izenean, abizenetan edo beste edozein datuan errakuntzarik balego, zuzendu egingo da tituluan titularraren eskariz, frogatu eta egiaztatu ondoren.

## **68. artikulua**

Titularrak Erregistro Orokorrean aurkeztuko dau idazkia, hobiratze eskubidea galdu egin jakola edo ohostu egin deutoela adieraziz eta barria emotea eskatuz. Horren ondorioz, hilobian egiten ari diran guztia geldiaraziko da, titulua baliogabetzeko aitorpenaren espedienteari emongo jako hasiera eta ordezeko titulua emongo da, espediente hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalekoan eta egunkari bitan, gitxienez, iragarri ondoren. 30 eguneko epe barruan, legezko eskubidea dabenez aurka egin daikie. Titulu barria emoten danean hilobian ezer egiteko geldiarazpena balio barik geratuko da.

## **69. artikulua**

Tituluaren ustezko atxikipen desegokia salatuko balebe, salatzailerei eta tituludunari audientzia emon eta gero, tituluduna agertuko ez balitz ere, erabakiaren emaitzaren arabera, hilobia erabiltzeko eskubidea geldiaraziko litzateke, Ordenantza honen barruan, aurreko artikuluan ezarritakoa bera eginik.

## **70. Artikulua**

Huskuneak lurperatzeko, gorpua bere zerraldoan sartuko da, bakoitza bere huskunean, Arautegi honetako 49n. artikuluan aurrikusten danean ezik.

## **71. Artikulua**

Huskueen nage eraikuntza eta lapida jartzea, hildakoaren senideek egingo dabe.

## **72. Artikulua**

Udal Hilerrian eraikitako panteoietan lurperatzeko, eta, 1.974eko Uztailaren 20ko, Hilan eta Osasun Zainketarako Arautegiaren 26n. artikulua ezarritakoaren arabera, osasun baldintza egokiak beteten dirala, egiaztatu beharko dau, aurretiaz, Osasun Lurralde Burutzeak.

## **73. Artikulua**

Hilobi edo panteoiaren apal bakoitzean, gorpu bat bakarrik lurperatuko da, lurperatze bakoitzean, ama eta erditzean hildako ume jaio barria izan ezik. Hilobi edo panteoiaren apalaren itxierea, hildakoaren t 8enideek edo horretarako izendatzen dabena egingo dau, beti, Lurperatzaile-Arduradunaren aurrean.

#### **74. Artikulua**

Indarreko legediaren arabera, beharrezkoa litzatekeen judizial baimenaren kalte barik, gorpuek egiten dan guztirako, osasun sailaren parte hartze edo baimena beharko da. Beraz, aldi baterako iraunarazte, baltsamatze edo beste honelako ekintzarik egiteko gorpuei, jagokon osasun agintean baimena eta parte hartzea, beharko da.

#### **75. Artikulua**

Gorpu baten aldi baterako iraunarazpena edo baltsamatzea, beharrezkoak izango dira, heriotzea gertatu ondoren, berrogei ta zortzi edo hirurogei ta hamabi ordu igaro diranean.

#### **76. Artikulua**

7. artikuloko II. Taldeko, baltsamatu gabeko gorpuak ateratzea, ondorengo kasuetan baimendu daiteke:

a) Hilerrian bertan, berehala barriro lurperatzeko, zerraldoa aldatuz, legez, parte hartu behar dauan osasun arloko langilegoari egoki baderitzo.

b) Beste hilerrri batetara eroateko, Osasun Herrialde Burutzeak, gorpuren egoerea eta eguraldiaren baldintzak ikuskatu ondoren, Burutza horretako Erregistro

Liburuan dagoan Hazur-osagile baten bidez. Jagokon osasun agintean emondako baimena.

Barriro lurperatzeko epeak, ezin izango dauz, berrogei ta zortzi orduak bete.

c) Hilerriko beste hilobi batetan lurperatzeko, azken honen titularraren baimena beharko da, a) puntuan ezarritakoaren gainera.

d) Indarreko xedeen arabera, berehala erretoko.

e) Bermeoko Hilerrian egiten dan gorpu ateratze guztiak, Hazurtegi Orokorra eroateko, osasun baldintzarik txikiak bete beharko dira, adibidez, propuaren materia organikoa ezabaturik ez balego, barrio itxiko litzateke, hilobia, huskunea edo panteoia, gorpuari ezer egitea debekaturik. Ekintza guzti hau, lurperatzaileak egingo dau. Hilerriko beste leku batera, edo ta beste Hilerrri batetara

eroateko, gorpua ateratzen bada, materia organikoa ezabatu barik, gorpua balitz, egingo litzateke leku aldaketea, beti ere, ezargarriak litzateke leku osasun baldintzak beteturik. b) atalean aipatutako osasun pertsonalak erabaki beharko leuke, materia organikoa guztiz ezabatua badago, horren arabera, egiteko, leku aldaketea.

Lurperatzaile-Arduradunaren ekintza guztiak, dagoz, tasa batzuri lotuta, senideek edo ta huskune edo panteoietako jabeek ordaindu beharko dabezalarik, indarreko Zerga Arautegiaren arabera.

## **77. Artikuloa**

Baltsamatutako gorpuk ateratu edo lekuz aldatzeko, osasun aginteak emon beharko dau baimena, zerraldoa, baldintza egokietan ez balego, beste bategaitik, aldaturik.

Baltsamatutako gorpua, zerraldo arruntan balego, aurreko artikuloak ezarritakoaren arabera, ateratu eta lekuz aldatu beharko litzateke.

## **78. Artikuloa**

Aurreko artikuloetan agertzen diran gorpu ateratzeak egiteko, Osasun Aginteari eskatuko jako, ateratu nahi izango diren gorpuaren lurperatze egiaztatzea erantsirik.

## **79. Artikuloa**

Gorpukin ateratu eta nazio barruan lekuz aldatzeko, hilkutxa bat erabili daiteke.

Baimena, Osasun Aginteari eskatuko jako, heriotzaren zergaitia eta eguna adierazten dauan egiaztatzea aurkeztuz.

## **80. Artikuloa**

Gorpukin ez diran hondakin guztiak, leku itxian gorde beharko dira, 14. artikuloko b) puntuan azaltzen diran labetik ahal danik hurreen, astebeterik behin, gitxienez, hustu beharko dalarik.

## **81. Artikuloa**

Gorpukinentzat huskuneetara horreek eroateko, metalezko hilkutxak erabiliko dira. Euren neurriak, gorpukin sartzeko bestekoak izango diralarik.

## **82. Artikuloa**

Ezin izango da inolako hilobirik igiri gorpukin ateratzeko bost urte ehortzetik pasatu arte.

Gorpuak edo gorpukinak daukazan hilobian, lurperatze bat egiteko, txikitu beharra balego, eskatu ezker egingo litzateke, beti ere, 5 urte baino gehiago balitz heriotza egunetik ordura, eta materia organiko guztia ezabatuta balego, gorpukinak izanez, beraz, hilkutxan jarriko lirateke, hil barriaren zerraldo barriari lekua eginez, horrela, hilobiko jabearen aurrean edo bere izenean doanaren aurrean.

## **VIII. ATALA**

### **Ordutegiak**

#### **83. Artikulua**

Hilerrira joateko ordutegia, Alkatetzaek jarriko dau, Deiaren bitartez.

a) Igitzeko ordua:

b) Ixteko ordua:

Ezarritako ordutegitik kanpo, ez da, Hilerrira sartzen itziko, premiazkoa izan ezik, eta beti, ere, Hilerriko arduradunaren aurrean. Araua hausten dauanari, gogor egin ondoren, urteteko agindua emongo jako, kasuen arabera, auzibidera eroateko kalte barik.

#### **84. Artikulua**

Hiltegia edo hazurtegia, udal langilea ez dan inor joatea, debekatzen da.

Hiltegian dagoan bitartean, hildakoaren senideren batek egon nabi badau, Alkate-Udalburu Jaunaren baimen zehatza lortu beharko dau, beti, ere, egote-orduak, ordenari buruz etab., Hilerriko langilego arduradunak emondako aginduak betetuz.

#### **85. Artikulua**

Gorpuak hartzeko eta lurperatzeko ordutegia, Alkatetzaren Dekretoz, ezarritakoa izango da.

Lurperatzeko, bebarrezkoa izango da, gorpua, Arautegi honetako 83. artikulok ezarritako ordutegia amaitzeko 15 minutu lehenago sartzea, bestela, hurrengo egunera arte, depositoa geratuko da, lurperatzeko zai.

Igande eta jai egunetan eta, aurreko artikuluan ezarritako ordutegi barruan, lurperatzeko zain, depositoa gorpua jartzeko beharrezko langilegoa eroatera behartuta dagoz, funerariak: Goizean hartzen badira, egun berean lurperatuko dira, eta arratsaldean hartzen badira, hurrengo egunean.

## **86. Artikuloa**

Gorpuaren egoereak horrela eskatzen badau, ordutegitik kanpo ere, lurperatu beharra egongo da, lurperatzeko legezko epea betetu ezker.

## **VIII. ATALA Mugak**

## **87. Artikuloa**

Guztiz debekatuta geratzen da, Hilerrian, edo ta hilobietan, inolako materiale edo gauzarik jartzea, udal baimen barik.

## **88. Artikuloa**

Baimendu gabeko gauzak kentzeko, 10 eguneko epea emongo dau Alkatetzeak, lege-hausleen kontura kenduko diralarik, berehala, agindua beteko ez balitz.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Arautegi honetan xedatzen danacen kalte barik, osasun araudiak eta, Hilan Zaintzeak ezarritako guztia bete beharko da.

## **XEDAPEN GEHIGARRI IRAGANKORRA**

Arautegi hau indarrean sartu orduko emondako betirako edo behin-betirako kontsezioak, emon diran egunetik hasitako 99 urteko eperako ulertuko dira. Epe hori amaitu ondoren, Arautegi honetako 33. artikulok ezarritakora, egongo da.

Bermeo, 1997ko Irailaren 2an